EUSKALEŔIKO BEŔIAK

GIPUZKOA

GESTORAK EGIN DITU PRESUPUESTOAK

Urte-mugan urteroko lana izan oi dute aginpidean dauden gizonak diruaren artu_emanak begiratzea, presupuestoak egitea alegia. Sarbideak eta eman-bearrak zertzuk izan ditezken ikusi bear izaten dute aurrez eta gero orretzaz gain lana egin. Eman-bearrak artu_bearrak baño aundiagoak ez luteke beñere izan bear; bestera zorrak sortuko lirake-ta. Datorren urterako orain egin duten presupuestoan artzekoak eta ematekoak berdin izango omen dira. Batzuek eta besteak: 29.906,296'93 laurleko.

Joan dan urtean 450.000 laurleko gutxiago omen ziran.

AUZO-ESKOLAI LAGUNTZA

Aurten auzo_eskolan aintzat artu dituzte ta aiei laguntza ematea erabaki dute. Guztitara 69 auzo -eskolak artuko dute diru-laguntza ori. Iru edo izan bear dute milla laurleko artzekoak; bost edo sei 750 artzekoak; lau edo, 600 artzekoak; beste sail aunditxoa, 500 artzekoak; batzuk 400 artzekoak eta geienak 250-inguru artzekoak.

Diru_mordoxka ederra joango da ortan baño laguntza ori ederki etorriko zaie eskola oiei.

Orretzaz gañera eskola batzutan egin bearrak diran lanetarako beste 8.000 laurleko izendatu dituzte.

GAXO-ETXEAI ERE BAI

Irun'en ba da gaitzepel edo tuberculosis arrapatuko duten bildurra dutenak jasotzeko gaxo-etxe bat; beste bat baita Donosti mendekoa Altza'ko lurretan.

Bi etxe oiei ere laguntza ematea erabaki dute. Lenengoari 1.000 laurleko ta besteari 2.000. Ezer gutxi egingo dute orrekin baño, tira

FRAISORO'KO LANAK

Fraisoro'n ikasleak bizitzen diran etxean eta ukulloetan etxe -berritze-lanak egin omen dira. 22.000 laurleko eralgi omen dira batean eta 8.000 bestean. Ordaindu ta kitu egitea erabaki dute.

BEASAIN'EN LANA EGIN NAI

Orain alditxo baterako lana izango dute Beasain'en. Bagoiak eta Lazkano ta Ordizia'ko udalak gobernadorearengana izan dira eske bat egiten. Alegia bagoi-olak langilleak artu bear ba ditu, iru erri oietako lanik gabekoak artzeko eskatzera.

Ortara ogibidea izango luteke beintzat aldi baterako. Gañera bidezkoa ere ba da erri oietako gizonak lantegi oietan lana egitea; bertakoak eta ingurukoak diran ezkero. Jaungoikoa'k dakin tokietakoai ematea baño egokiagoa da noski.

IRUN'EN LANTEGI BERRIA

Langilleak bai ta lanik ez? Oker ori zuzentzeko lantegi berriak ipintzea bezelakorik ez legoke noski. Irun'en ango lanik-eza uxatu -bearrez lantegi berria ipintzera dijoaz. Bizarra kentzeko aba, kañibeta ta labanak egiteko ola bere-rria aurki izango omen dute Gipuzkoa'ko maga-erritarrak.

Madrid-aldean eragozpenak baztartu bear izan omen dira, baño baztartu dituzte ta aurrera egingo omen dute noski ta langille batzuk izango dute nun lana egin.

SANTOTOMASETAKO JAIAK

Santotomaseta'ko periya, txorixua ta ogiya... Plaza zarre'ko txuluetan ba zan olio-erre-usaya ta kea ugari. Beraz txorixua nork jana ere bai, izango zan.

Baño ori baño geiago izan oi da Santotomas'etako jaia. Antzerki ederrak antzoki zarrean. (Orain berri-berria dago au ere). Arratsaldean «Osaba» ta arratsean «Mutil zar». Ura jendearen emana ura jaialdiaren ederra ta atsegiña!

Beste jaitxo pozgarriagoa ere izan zan ordea Poxpoliñatako antzoki ederrean. Donosti'ko eskolako neska-mutikoak euskera goratzen euskeraz dakitena esaten, abesten...

Ernani'ko mutikoak euskal-kantak abesten: Academia Donostiarra'ko mutikoak Artzak'en ipuia bertsotan esaten; Pasai'ko mutiko abeslariak berak dakiten bezela Aita Donosti'ren abesti batzuk oiukatzen; Arantzazu'ko Andre Mari ta Iñaki Deun ikastoletakoak Kristau-ikasbidea ta geografi ta aritmetika ta euskeraz dotore asko esaten; gero San Bartolome ikastetxeko neskak astronomiaren berriak ematen izarren gora_berak jakin eraziaz ta piano ta bioliña ederki joaz ta lau abotsetako kantak ederki emanaz; Sagrado Corazón'eko mutikoak Atxia motxia ta Basa-txoritxu ta beste abestiak ederki abesten; Santa Teresa'ren lekaime eskolakoak beren izenean Albarro'tar Jaione biali zuten; bai gozoro esan zula «Maitasun-indarra» olerkia; gero Nuestra Señora de los Angeles neska_ikastetxeko txikiak bertso-esaten guztia parra eragiten; eta azkenik San Juan -kaleko mutil-ikastetxeko dantzariak Ezpata-dantza egiten..

Tarteetan berriz aretoan zeuden nexka_mutikoak euskel-abesti ederrak abestu zituzten Aita Laborda zuzendari zutela.

Pozgarria izan zan benetan jaitxo ura; gure txikiak euskera-maitasunean orrelaxe berotuko dira ta bein berotu ezkero; itz egingo dute ta guztientzat mesedegarri izango da ori.

Jarrai bezate Donosti'ko ikastoletako irakasleak orrela, lanik ederrenetakoa egiten dutela uste izanaz.

LANIK GABEAI TA BEARTSUAI LAGUNTZA

Batean eta bestean lanik gabeai ta beartsuai laguntzak eman dizkiete Gabon eta Eguberri-jaiak dirala ta. Gipuzko-emakume abertzale-batza'k ortan lan eder egin du. Asmoa Donosti'koak atera zun eta andik eta emendik lagundu_ta, egundoko jan-edari-pilla batu zuten. «250'tik 300» bitarte izango omen dira lanik gabe egon eta ala ere Gabon-gaua ederki igaro duten eusko_langille-sendiak.

Bakoitzari bere zorrotxoa gauza eder eta egokiz ornitua an eman zioten.

Gero gañera Santotomas'etatik Errege-eguna bitartean jaiotzen diran eusko-langilleetan edo gizonezko edo emakumezkoen batzokietan izenak eman_da dauzkaten seme-alabatxoentzat, otarratxoak asko dira.

Boulebar'en antxe egon dira erakustoki eder batean jendeak ikusi zitzan.

A zer poza, gauzak ongi atera ta, otarratxoa etxean sartzen ikusten duten amaen poza! Beartsuai orlako poza eman eta orlako mesedea ematea, ori bai dela zer-tar -karidadea...

SENAR_GAIAREKIN ZIJOAN 18 URTEKO NESKA GAZTEA IL

Santotomas-egunean Pilar Gomez 18 urteko neskatxa, eguna lanean igaro ondoren, bere senargaiarekin omen zebillen Atotxa'ko pelota-leku_inguruan. Agian pelota-lekura joango ziran, an dantzaldia omen zan-da. Neskari laguntzen zion mutilla Ricardo Sada Agirre, 19 urtekoa zan. Neska -mutillak dependientiak ziran.

Ba omen zebiltzan biak arratseko zortzirak-aldean eta bat-batetan ai_ots bat egin eta lurrera erori omen zan neska. Orduntxe entzun zan tiroak jo zun nunbait gajoa. Artu ta automobil batean osat-etxera eraman zuten baño ara ordurako illa omen zegon.

Nundik-norako tiroak ote ziran neska il zutenak? Santotomasegunean gorri-jendeak galerazitako orriak zabaltzen ibilli ziran; oietako bat noski an zebillen Atotxa'n eta txinel batek atzaparra ezarri zion. Ala ere ordea etzun amorrik eman nai ta jo emen zun txinela ta igesari eman; bestea atzetik jarraika omen zijoan eta ordun gorriak tiroka ekin omen zion. Txinelik etzun jo baño bai pake ederrean zijoan neska ta baita il-da utzi ere.

Ondo egia da bai noiz jaio giñan eta nun ba dakigula; baño ez noiz ta nun ilko geran. G. B. Pilar gaxoa.

ALBIZTUR

ELIZAKOAK ARTUTA

Irusta goiko Saizar'tar Domingo, 34 urtekoa, gaxo dago. Egoki bazaio, lenbaitlen sendatzea opa diogu.

GOIAZ'KO «ARANTZA»RI

Irakurri det, «Arantza», Egutegi berriak dakarren asmakizun gaiaz ezarri zirazuna. Gai beraz nik niona, zuk ere, bai, noski...?

Eskatu bearrik gabe zerekin zendukan baimen osoárekin, (nik baño begi argiagoa dezun orrek), bidali zaizkidatzuke nai dituzun aña txartel, kide, poz-pozik artuko zaitugu-ta.

BI AUZI... IZAN BERRIAK DITUGU EMEN

Lenengoa, Azilla'n, baserritar batek besteren usoak bere soroan tiroz ill omen zitulako.

Bigarrena, Lotazilla ontan, baserritar berak lengoari usoak artasoroan baitu zizkiola esanaz, auzia ipiñi ziolako.

Azkenengo au beintzat, ikusten ere izan nintzan da, milla bider obe zan noski egin ez balitz.

Bi auziak, baserritarrak galdu ditu emen; uso jabeak irabazi. Galtzalleak Tolosa'ra jo du, ordea, azkenengo onekin eta Tolosa'ko erabakia ere, jakitean agertuko det.

Baikuntzak egin nai izan ezkero, usoak baño pizti itxusi ta kaltekorragoak, ugari ta erraz arkitu litezke erri ontan ere noski. Bada norbaitzuen artasoro, sagasti, gaztañadi ta orain emen berezi edo izendatu nai ez ditudan beste leku batzuez gañera, sendi elizkoi ta zintzo bat bizi dan Aitzalde'ko etxe ondoan ere, usoak ezezik, «putre» traketsak baño aundiago ta kaltekorrago diran piztiak ibili oi omen dira-ta... oyek bai bear lirake, oyek!

Usoak baitu ta «putre» traketsai utzitzen zaiotela azke, alperrik gabiltza, gorrotoa geituaz... gezurrak saldu-ko dira merke!

EUSKALDUN GUZTIOI BIOTZEZ

Azken egunetan degun urte zaar au ongi amaitu eta sarri datorkigun urte berriari asiera obea ematea opa dizuet.

LUISTAR

ALTZA

Eguarri jayak pozkiro igaro ditugu, Jesus aurrari gure biotzak eskeñirik.

E. A. B. antolatu duan saskitxoakin guzien artean sosketa bat egingo da.

Norentzat izango ote da? Dana dala eroritzen zayona urte berri yari asiera ona emateko moduan izango da, ta on dezayola.

—Gaxorik akitzen da Kasanaoko Zeberio'tar Jose gizon ona.

Lenbailen osatzea opa diyot.

JAYOTZA

Murua'tar Estanislao'ren alabatxoari Miren euskal izena jarri diote.

Zorionak.

ZUGAIZPE

YUTE OLAK

Ziriko (arpillera), zorro. lokarri txartinzai joskari lokarritegirako ari lodiak oro-muturrak lotu ta josteko ariak eta abar. Zuzenpidea

VICTORIANO CELAYA

APARTADO 1. ZUMAYA

AMASA

EGUTEGIA ARTU DEGU

1935'garren urterako ARGIA'k atera duan Egutegia, guztiz ederra argitaratu dute. Irakurle euskotarra, ¿ez al dezu ba oraindikan erosi onelako Egutegi eder au? Peseta bat besterik ez du balio ta guztiz ederra da.

Arrituko zera, gaur bertan erosi zazu, «periodistaneko» «tabernan» dande salgai.

IZPAR BELTZA

Jaunaren besoetan il da «klinika» baten osakuntza egin ondoren Ezkioga tar Terese. Goyan bego.

Atsekabean laguntzen diet bere senide guztiai, ta zuri, irakurle, Aitagure» bat eskatzen dizut bere izenean.

GAXO

Egun batzuek oiean egin ondoren agurtu degu Lesaka'tar Imanol, ongi sendatuta. Poztutzen gera.

IXKIÑA

ARRONA

ASTEKO BERRI LABURRAK

Antonenian izan duten aurtxo jalo berriya, astelenian batayatu zuten. Lazkano'tar Aguxtin eta Urain'dar Maria jasotzalliak Miren Arantzazu euskal-izen ederra ipiñi zioten.

—Jostunaneko Arakistain'dar Karmen, asteartean ezkondu zan Itziarko Lazkano'tar Tomax mutil ezagunakin.

—Eguberri egun aundiyak beren sendien artean egiteko etorri zaizkigun erritar ezagunai, ARGIA'ren orrietatik ongi etorririk sutsuenak damaizkiegu.

—Egoarri egunian deitu zan, Ibarrolako Unanue'tar Joxepa neskatxon eta argiya. Entzun degunez Donostian dari batekin.

—ARGIA'ren zuzendari, idazle ta irakurle guziai urte berri on bat opa diyegu.

—Arrona'ko erri onetan ARGIA katoliko euskal asterokoa ezagutu ta irakurria izan dedin, astero zerbait idaztea asmoa artu genduan. Irureun eta ogeita amabost aste jarraituetan gaurko onekin idatzi degu, ta zuzendari jaunari eskerrak danak bat edo beste ezik argiratu dira, ta emen ARGIA, etxe guzietan irakurtzen da. Iñoiri miñik eman gabe aurrera ere jarraitu nai genduke. Arronatar ARGIA irakurle guziai urte berri on bat.

ZIOLAR

ASTEASU

OLENTZERO TA EGUBERRI

Beste urtietan bezela aurten ere abeslari asko urbildu da kale ta baserrietako ate inguruetara, euzko abesti alaitsuak abestuaz.

Eguberri egunez berriz, beti bezela erriko txistulariak jo ziguten goiz ereserkia goizeko bostetan, jendeari alaitasun bat sortuaz; ondoren eman zitzaien elizkizunari asiera jaupa abestu batekin, ez nolanai abesture gañera, badirudi gure elz abesbatza egunetk egunera trebetzen dijoakigula; orrek asko poztutzen gaitu batez ere eliztarrak.

Gañerako elizkizunak ere ederrak izan ziran, eliza jendez betea guztietan, ori da edertasunik onena.

BATZOKIAN DIOTENEZ

Antzezlari talde bat osatu ondoren, gogoz ari dira antzerkiak ikasten ta egun gutxi barru antzerkiren bat izango degu noski; orretaz gañera mus eta tute txapeltza igande oietako batean asiko dira ta oraindik izena eman ez duana azkar ibilli leike, gero berandu izango da ta. Bazegon zerbaiten bearra abertzaleak batzokiratuko bagiñan.

AGURTU

Madrid aldetik etorrita emen agurtu degu Bidaurreta'tar Jaime sendagille ikasle gaztea. Ongi etorri.

IDI APUSTUA

Urte berri egunez Tolosa'ko zezen enparantzan jokatuko dira erri ontan bi idi pare bat Lizola ta bestea Lizola-Koina baserritakoak.

Urte berri egunez
Tolosa aldera,
bi alderdiak goizean
goizetik an dira.
Bakoitzak bere alde
dirua jokatzera
irabazitakoak arro, galdutakoa
itun, gero, etxera.

MAÑAKA

Jose Golkoetxea Zulaika

Orztlari ta sendagillea

Ortz berriak jarri ta txarrak ateratzeko ortzlari trebe ta konfiantzazkoena

Mayor 1, 2.° — DONOSTIA

AZKOITIA

JAIOTZA

Koatei basetxeko Aranbarri'tar Joseba ta bere emaztiak alabatxo bat izan dute. Ezkontzako bigarren igalia. Zorionak.

AMERIKETATIK ETXERA

Lau urte Ameriketan egin ondoren etxeratu da Olantxo basetxeko Alberdi'tar Joseba.

ERIOTZA

Goi laguntzak artu ondoren emengo Erruki etxean il da Azpiazu'tar Tomas «Bion azpi» basetxekua. Otoi bere gogo aldez. G. B.

DEIETAN

Ezkon deietan daude Juaristi'tar



Sega zorotza eta orpoz sendoa. Bere markea: "Ezkura"

Kaltzayu gogor-zimelakin Legazpin egindakoa

Segalari onenak diote, au bezelako segarik ez dutela ezagutu

Ezkura daukan sega bat,
Elbaria ateratzen bazatzu,
Ordezkoa emango zatzu.

Erostekoan ondo begiratu:
Ezkura kirtenean agiri ez badu,
Ez iñola ere artu.